## 115. Salmoa

**Esker oneko kalizak,**
**Kristoren odolean alkartzen gaitu.**






Zer bihurtuko deutsat Jaunari,
emon deustazan guztiakaitik?
Salbamen-edontzia dot hartuko,
eta Jaunaren izena deituko. R/.

Jaunaren begietan balio haundikoa
Haren zintzoen herioa.
Zure morroi nozu, ni, Jauna,
zure morroi eta zure neskamearen semea,
askatu dituzu nire kateak. R/.